

OMNIPAGE PRO 11.0-RAKO

EUSKARAZKO OCRa 1.1


EDUKIEN AURKIBIDEA

<u>1. Instalazioa</u>	1
<u>2. Erabilera</u>	3
<u>3. Desinstalazioa</u>	5


1. Instalazioa

Omnipage Pro 11.0-rako Euskarazko OCRa 1.1 instalatzeko, nahikoa da *euskocr1.1_op11.exe* egikaritzea eta pantailan agertzen diren pausuak jarraitzea:


- 1) *Bai* sakatu Euskarazko OCRa 1.1 instalatzeko:




- 2) *Hurrengoa* sakatu instalazioarekin jarraitzeko:




- 3) Beharrezkoa da pausu honetan *OmniPage Pro 11.0* programa instalaturik dagoen karpeta aukeratzea, bestela plug-in honek ez du funtzionatuko (defektuz C:\Archivos de programa\ScanSoft\OmniPagePro11.0 karpeta agertuko da pantailan, aldatu egokia ez bada).



- 4) Ondorengo pantailako datuak errepasatu *Instalatu* botoia sakatu baino lehen:




- 5) *Bukatu* botoia sakatu instalazioarekin amaitzeko.




Programa ongi instalatu den jakiteko, Omnipage Pro 11.0 ireki eta jarraitu ondorengo puntuan (2.*Erabilera* atalean) azaltzen diren urratsak.

2. Erabilera


- 1) Behin Omnipage Pro 11.0 irekita, *Tresnak* menuko *Aukerak* → *OCR* sakatu:



- 2) Euskarazko OCR bertsioa ongi instalatua izan bada, hizkuntzen zerrendan *Euskara* hizkuntzaren ondoan, liburuxka bat aterako da (horrela ez bada, instalazioan arazoak egon direnaren seinale da):



- 3) Dena ongi joan bada, nahikoa izango da euskarazko testu bat ireki, *Euskara* hizkuntza aukeratu eta OCRa martxan jartzea. Testuan akatsak aurkituko balira, euskarazko proposamenak agertuko dira orain.



3. Desinstalazioa

Gure tresnaren funtzioak eta baliabideak Omnipage Pro 11.0 programatik kendu ahal izateko, hauxe da egin behar dena:

- 1) *Hasi* menutik *Ezarpenak* → *Kontrol-panela* hautatu.
- 2) *Gehitu/Kendu programak* aukera hautatu.
- 3) Instalaturik dauden programen artean, aukeratu *Euskarazko OCRa 1.1* programa eta kendu zerrendatik.
- 4) Hori eginda, *Euskarazko OCRa 1.1* gure sistematik ezabatuko da.